

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 2539

*AGINDUA, 2020ko ekainaren 10ekoa, Osasuneko sailburuarena, Beasaingo farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da.

Sail honetako Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak emandako biztanleria-datu ofizialak aztertu ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-eremuak finkatzen dituen Osasuneko sailburuaren 2018ko apirilaren 20ko Aginduaren 4. artikuluko 2. puntuarekin bat etorriz, bidezkoa da farmazia-bulego berri bat instalatzea Beasaingo farmazia-eskualdean.

Beasaingo farmazia-eskualdeak eta haren barruan biltzen diren udalerriek 3.C.GA.06 erreferentzia dute Osasuneko sailburuaren 2019ko ekainaren 21eko Aginduaren eranskineko C apartatuan. Agindu horren bidez, farmazia-eskualdeak zehaztu eta sailkatzen dira, eta eskualde bakoitzean sartzen diren udalerriak adierazten.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

1.– Beasaingo farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko deialdia egitea, Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz (otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

2.– 11/1994 Legearen 13. artikuluan finkatutako irizpideekin bat etorriz, Farmazia-eskualdeak zehaztu eta sailkatu eta eskualde bakoitzean sartzen diren udalerriak adierazten dituen Osasuneko sailburuaren 2019ko ekainaren 21eko Aginduari jarraituz, eta dagozkion biztanleria-datuak aztertu ondoren, deialdiko farmazia-bulegoa Beasaingo udalerrian jarri behar da.

3.– Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.– Eskabidea eta harekin batera doan dokumentazioa bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez (<https://www.euskadi.eus/servicios/0609203>). Han daude eskuragarri bide elektronikoz izapideak egiteko zehaztapenak, eranskinak, eskuliburuak eta ereduak.

5.– Eskabidea aurkeztu ondoko izapideak eta jakinarazpenak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 10a.

Osasuneko sailburua,  
MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRÍA.